



Martxan da Emakumea Pilotari Txapelketa

TOLOSALDEA ▶ Beotibar frontoian hasiko da gaur, 15:30ean; denera, hamabi bikote ariko dira lehian

HELBURUA ▶ Lehen edizioan bezala, emakumeen parte-hartzea indartu nahi dute ekimen honekin ▶ 2

EDURNE ORMAZABAL ▶
AURKEZLEA

«Familiar
puntuak du
Donostiako
Zinemaldiak»

12 urte daramatza
Zinemaldiko
galak aurkezten
tolosarrak ▶ 3

ZIZURKIL ▶

**Alderdien
Legea ez
dela betetzen
salatu dute**

PPko Maria Jose
Usandizagaren ustez,
«EAE-ANVk
Zizurkilgo Udalean
hartzen du parte» ▶ 6



NEREA URBIZU

Txinkorta ikastetxe txikia handitzen

BIDEGOIAN ▶ Borondatez lortu dute ikastetxea gero eta handiago egitea; gurasoen eta Reviglass lantegiari esker, besteak beste ▶ 4-5

Kimetz

denda berria



Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96



Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62



“Natura
bezain
eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

**PEUGEOT 308
berria**



PILOTA ▶

Gaur bertan abiatuko da II. Emakumea Pilotari Txapelketa

Hamabi bikote ariko dira lehia, bi mailatan banatuta; gaurko partidak 15:30ean hasiko dira Beotibar frontoian



2006-2007 denboraldiko ezker hormako txapelketako pilotari parte-hartzaileak. HITZA

ERREDAKZIOA

2006-2007 denboraldia bukatzearekin batera, amaitutzat ematen da Emakumea pilotari ekimeneko lehenbiziko fasea, eta gaur bertan hasiko dira bigarrenarekin Beotibar pilotalekuan. Beraz, proiektuak bere fruituak eman ditu dagoeneko. Izan ere, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, «emakumeen parte-hartzea indartzeko» proiektu hau kirolaren hiru arlotan garatzen ari da, eta arlo bakoitzean hainbat neska ari dira pilotan.

Federazioak luzatutako datuen arabera, aurten, Gipuzkoan, euskal kirolak sustatzeko burutu diren jardunaldietan 934 neska aritu dira, eta horietatik 208 Tolosaldekoak. Nesken pilota eskolei dagokionez, Gipuzkoan hamabost aritu dira, eta hamabi eskualdekoak. Gipuzkoako paleta txapelketan berriz, eskualdeko zazpi neskek hartu zuten parte.



I. Emakumea Pilotari txapelketako finaleko jokalaririk. UROLA KOSTAKO HITZA

EMAKUMEA PILOTARI ▶

Beotibar pilotalekuan jokatuko dituzte gaurko partidak. Lehenbizikoa 15:30ean izango da, eta jarraian besteak. Gaurkoa, lehenbizikoa fasea izango da eta paleta gomaz ariko dira neskak.

URRIAK 6, GAUR

▶ M. Zabala-N. Zabala /

Arrendo-Urbieta.
▶ Bañales-Gurrutxaga / Urbistondo-Lukas.
▶ Jauregi-Goenaga / Lujanbio-Arrizabalaga.
▶ Manzisidor-Argain / Pierola-Montes.
▶ Fernandez-Arozena / Etxegia-Mendizabal.
▶ Evaristi-Errasti / Urkizu-Unanue.

25 urtetik gorako emakumeentzako antolatutako paleta ikastaroetan Tolosaldeko hamalauek eman zuten izena. Emakumeen pilotari egunean berriz, hemengoak zazpi ziren. Kirol federatuari dagokionez, Tolosaldeko lau neska federatu dira aurten, eta hauek Anoetako Kuku elkartearekin ariko dira. Aipatutako datuen arabera, gutxinaka pilotan ari diren emakumeen kopuruak gorantz egin du.

Antolatzaileek azaldu bezala, «proiektuak lehenengo fasean izandako erantzun baiko-rrak bultzatuta, GEPKeko zuzendaritza batzordeak Emakumea pilotari egitasmoaren bigarren fasea martxan jartzea erabaki du». Proiektu honek Foru Aldundiaren eta probintziako hainbat herritako Udalen laguntza izango du.

Hastera doa lehia

2006-2007ko denboraldian bezala, orain hastera doan honetan, ezker hormako II. Emakumea Pilotari Txapelketa jokatuko dute federatu mailan. Baina bigarren edizio honetan berrikuntza bat egongo da parte-hartze kopurua igo egin baita. Guztira, joko maila ezberdinetako hamabi bikote ariko dira lehia, baina bi mailatan banaturik. Lehenbizikoan erdiak, eta bestean gaintzakoak. Hau honela, txapelketa gaur hasiko da. Hala, neska federatuen gomazko paleta partidak ikusteko aukera izango da arratsaldean, Beotibar pilotalekuan. Norgehiagokak 15:30ean hasiko dira, eta esan bezala, denera sei jokatuko dituzte.

Joan den denboraldian jokatutako Emakumea Pilotari Txapelketan eskualdeko bat izan zen garailea. Azpeitiako Izarratik pilotalekuan jokatutako finalean Anoetako Maider Mendizabal nagusitu zen, pronostikoak betetz. Eluska Arrendorekin batera, 30 eta 27 garaitu zituen urtarrilaren 27an jokatutako finalean, Nagore Arozena lizartzarrek eta Garazi Jauregik osaturiko bikotea.

AMEZKETA ▶

Zaragozara joateko aukera du nahi duen guztiak

Amezketako Udalak Pilar egunean, hau da hilaren 12an, Zaragozara joateko irteera antolatuta du 60 urtetik gorako amezketarrentzat. Izena emateko epea amaitu eta gero, oraindik tokia dagoenez autobusean, bidaiara joateko aukera luzatu nahi diete 60 urte baino gutxiago dituztenei. Txartela hilaren 9a baino lehen erosi beharko dute, eta prezioa 25 eurokoa izango da.

TOLOSA ▶

Pasabane eta Izagirrek ez dute igo Shisha Pagma

Edurne Pasaban eta Asier Izagirre tolosarrek, euren espedizioarekin batera, uko egin zioten herenegun Shisha Pagmako gailurra igotzeari (8.046 metro), eguraldi txarra zela eta. Euskal mendizaleek, hainbat egun igaro ostean, bigarren ahaleginik ez egitea erabaki dute, eta hurrengo egunetan itzuliko dira Euskal Herrira.

TOLOSA ▶

Esteban Nieto omenduko dute bihar, Larraitzen

Esteban Nietoren heriotzaren 8. urteurrena gogoratzeko ekitaldia egingo dute bihar. Ekitaldia 12:00etan hasiko da Abaltzisketako Larraitzen auzoan. Antolatzaileen esanetan «ekitaldi xumea». Espetxetik gaixo zegoelako atera zuten. Hala, kalerratu eta bost hilabete eta 20 egunera hil egin zen. Etxeratekoen esanetan, «Espetxeko medikuen utzikeriaren erruz garatutako minbizia- ren eraginez hil zen».

hilberria ▶

Julian Kortajarena Azkonobieta

(Ignazia Iturrioren alarguna)



Atzo hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Bere seme-alabak: Felix eta Pilarxo, Begoña eta Juan Modesto; bilobak: Ane, Elen, Felipe, Bertol eta Eli, Iera; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, iobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otitzi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GAUR LARUNBATA, arratsaldeko 15:30ean, Zarauzko Santa Maria La Real parrokia elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Santa Maria kalea 18, 2. ez. oharra ▶ hillela Zarauzko Bellategian dago

ZARAUZ, 2007ko urriaren 6a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

EDURNE ORMAZABAL ▶ DONOSTIAKO ZINEMALDIKO AURKEZLEA

«Donostiako Zinemaldiak besteek ez duten familiar puntu hori du»

12 urte daramatza Edurne Ormazabal tolosarrak Donostiako Zinemaldiko galak aurkezten

IÑIGO TERRADILLOS

Duela 12 urte hasi zen Edurne Ormazabal (Tolosa, 1963) Donostiako Zinemaldia aurkezten. «Inoiz baino gogo handiagoarekin» ekin zion aurtengotari, 55. edizioari, hain zuzen; baina, hori bai, «aurrekoetan bezala, tentsioa eta erantzukizuna dela eta oso nekatuta» amaitu du.

Nola hartu zenuen aurtengo Zinemaldia?

Inoiz baino gogo handiagoa nuen. Ez dakit esplikatzeko zergatik, baina inoiz baino ilusio handiagoz hasi nintzen. Planteamendua aurreko urtekoen oso antzekoa zen, baina urte bakoitzak hartzen duzu ilusio handiarekin. Taldea ikusten duzu lanean gogor ari dela eta azkenean kutsatu egiten dizute gogo hori.

Bukatzean?

Oso nekatuta bukatzen dut beti, nekagarria izaten da. Gorputza baino gehiago burua nekatzen da, tentsio handia izaten baita. Egun asko dira jarraian, eta erantzukizuna handia izaten da.

Noiz hasten zarete Zinemaldirako prestatzen?

Talde antolatzailea maiatza inguruan hasten da lanean, eta ni uztailean edo hasten naiz, gala beraren bizkarrezurra diseinatu ondoren. Orduan hasten naiz gidoiaren planteamenduari. Hasi nintzenen gidoiari bat egoten zen, baina azken 4 edo 5 urteetan nik egin dut gidioa.

Richard Gere izan da aurtengo Donostia saria. Zuk, gainera, berarekin egoteko aukera izan duzu. Zer iritzi duzu berarekin?

Oso jatorra, burutsua eta doto-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

rea iruditu zitzaidan. Gertuko harremana izaten saiatzen denaren inpresioa eman zidan. Horretaz gain, kuriositate handia zuen, eta galderak egiten zituen uneoro.

Horrelako jendearekin Mundu osoan hain ezaguna den pertsona batekin egotea ez da erraza izango.

Orain dela urte batzuk urduria go jartzen nintzen, baina geroa ohitu egiten zara horrelako egoeretara. Askotan urduri jartzen zaituena beraien inguruan egoten den parafernalia da. Beralengana iristean pertsonak besterik ez direla konturatzen zara, batzuk atseginagoak besteak hotzagoak; beraien keinuetan eta hitz egiteko eran ikusten duzu gertuagoko erlazio bat planteatzen duten edo hotzagoa, eta zuk edukazio osoz eskatzen dizutena egiten duzu.

Zer zioen Richard Gere Donostiaz?

Bera oso gustura zegoen. Egia esan, inoiz ez dakizu benetan ari den, edo besterik gabe esan behar duena esaten duen. Harrituta zegoen, Donostiaz ez zuen erreferentziarik eta oso hiri polita iruditu zitzaion. Zinemaldiaz, bai, hitz egin ziotela aurrez esan zuen. Giroa eta jendea asko gustatu zitzaizkionela esan zuen.

Denak ez dira Richard Gere bezain adeitsuak izan.

Beste muturra Demi Moore izan zen. Richard Gere bakarririk ibili zen, lasai, bere emaztearekin, oso modu normalean, baina Demi Moore, askoz gutxiago ibili zen Donostiatik, eta agertu zenean segurtasun neurri handiekien eta beste jarrera batekin egon zen. Egia da egoera desberdina dela, izan ere, Donostia saria jasotzera oso bestelakoa da. Donostia saria jasotzera etortzen dire-

nean baiezkotzea esaten dute, eta nahi dutelako etortzen dira. Film bat aurkeztea azken finean zure lanaren zati da. Hori bai, normalean denak oso profesionalak dira.

Zein beste Zinemaldirekin alderatu daiteke Donostia-koa?

Cannes eta Berlineko zinemaldiak ezagutzen ditut nik. Cannes munstro ikaragarria da, baina zinemaldia baino gehiago merkaturia da, han erabakitzen direlako negozio asko eta asko. Berlin ere handiagoa da Donostia baino, eta negoziak ere badu hain garrantzia, baina ez Cannes-en bezainbeste. Berharbada, Donostiak duena familiar puntu hori da. Hiriak ere asko laguntzen du, edertasun postal hiria delako.

Aurtengo Zinemaldiko zein film aukeratuko zenuke?

Hana Makhmalbaf-en *Buda ex-ploto por vergüenza* asko gustatu zitzaidan.

Euskal zinemagintza nola ikusten duzu?

Film laburren alorrean oso gauza interesgarriak egiten ditugu, baina, zailagoa da film luzeetan lan egitea; batez ere, euskaraz egindako pelikulak aurrera ateratzea izaten da zaila. Hori bai, dudarik ez dagoena da oso profesional onak ditugula.

DI-DA BATEAN ▶

Pelikula bat?

La mujer del teniente frances.

Gehien ikusi duzun filma?

El sur.

Zuzendari bat?

Francis Ford Coppola.

Aktore bat?

Sam Shepard.

Pelikula euskaldun bat?

Guziak. Zaila da niretzat bat aukeratzeko.

AKTOREAK

«Donostia saria jasotzera edo filma aurkeztera etorri desberdina da; dena den, denak ere oso profesionalak dira»

EUSKAL ZINEMA

«Zaila da euskaraz egindako filmak aurrera ateratzea, baina, dudarik ez dago oso profesional onak ditugula»

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Emakumea behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizez. 943 698273 / 679 820084. **Estetikako aparatuak.** Solarium horizontala, ilea behin bitirako ezabatzea eta esku-oha. 660 05 76 05. 16:00etatik 20:00etara. **Gizarte langilea.** Abaltzisketa

(%8,90ko dedikazioa), Orendain (%8,05ko dedikazioa) eta Baliarraingo (%8,05 dedikazioa) Udalek gizarte langilea kontratatze deia. Kontratazioarako oinarriak bulegoetan aurkitzen dira. Izena emateko azken eguna: urriak 16, hau barne. **Etxeko lanak.** Astean 4 orduz etxeko lanak egiteko emakumea behar da. 665 709848.

SALGAI

Etxebizitza. Zabalaretara lorategietan 67 m²-ko etxebizitza. Bi logela eta bainugela bat. 619 55 61 54. **Etxebizitza.** Beasainen etxebizitza eraberritua salgai. 50 m², 2 logela, altzariz hornitua. 26 milioi pezeta. 605 765135 / 670 422467. **Autoa.** Lada Niva. 647 525516.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisua "La Estrella" eraikinean. **Salgai (Ibarra).** Garajeak Euskal Herria kalean, irekiak. **Salgai (Tolosa).** Garajeak Leidor azpian. **Salgai (Ibarra).** Lokala Euskal Herria kalean. **Salgai (Tolosa).** Garaje itxia San Frantzisko kalean. **Alokatzeko (Tolosa).** Pisua, Nafarroa etorbidean. **Alokatzeko (Tolosa).** Garajea irekiak, Araba etorbidean. **Alokatzeko (Tolosa).** Garaje itxia, San Frantzisko eta Iurren. **Alokatzeko (Leaburu ko bidean).** Pabillioi industriala. 943 65 17 13 / 677 46 09 16

Tolosako Udal

(IRAGARKIA)

2007ko Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dagozkiek erreziboak bonordateko ordainaldian daukela, jakinarazten dugu. Hauxe da epea: 2007ko urriaren 1etik 2007ko azaroaren 10ra. 2006ko irailaren 4an baino lehen banku edo Kutxan helbidertutako agiriak, zergadunak esandako kontuan sartuz kobratuko dira zuzenean. Helbidertzeke daudenak zergadunaren etxera bidaliko dira posta bidez urriaren barruan, berak emandako helbide fiskalera. Etxean jasotako erreziboak ordaintzeko jo Kutxa, Ereziboa erakustearrekin nahikoa da. Hauxe dakarkizuet gogora, ordaintzera joaterakoan, hemendik aurrerako erreziboak banku edo aurrezki kutxa horietan helbidertzekeo aukera duzuela. Urriak 20rako zergadunak ez badu jaso bere helbidene agiria, Tolosako Udalako Zerga Bilketa bulegoan eska dezake. Goian esandako ope hori amaitu ondoren, premia bidetari ekingo diogu, eta ordaindu ez diren errezibo horiek errekargoa izango dute, atzerapenagatik sortutako interesak eta kostoak ere zergadunari kobratuko zaizkie.

BIDEGOIAN > HEZKUNTZA

Gauza handi horiek eskertuz

Borondatearekin lortu dute Txinkorta ikastetxe txikia handi egitea: gurasoen lana eta Reviglass enpresaren papera ezinbestekoa eta eskertzekoa izan dela gogoratu nahi izan dute irakasleek

NEREA URBIZU

Borondatea eta gogoia dira Bidegoianen erantzutzaileak. Txinkorta ikastetxe txikiak itxura polita dauka kanpotik, baina Ernio guraso elkartearekin batera Reviglass enpresari esker ere Eskerrak hori erakutsi nahi izan dute Txinkorta ikastetxearekin. Eskolako hartu duen itxura ikusita, Honela, eskola bizi-rik dagoela argi geratu da: haurrek, gurasoek eta irakasleek emanakotak.

Horien ere artu dira, klaseetan antzezleku txikiak baituzte, eta baita sukalde eta denak ere. Hauen kordinak eta tokiak berarekin joan zituzten. Gurtinaka, ikasleak itxurora geldituz joan dira.

Bidegoian ere hazten

Herri saiko bezala, Bidegoian ere handitzen ari da, eta eskola txikia gelditu da dagoeneko. «Duela 6 urte eraikin berri hau egin zuten eta orduan zegoen jende kopuruari begira ere juxta samarra egin zuten», gogoritzen dute besteak beste. Orain, hezkuntza sailari eskaera egingo diete, ikastetxea handitu ahal izateko, eta honela errealitateari erantzuteko.

Reviglass enpresarekin harremanetan guraso elkarteak jarri zen, eta emaitza murraltzailearen ideia izan zen: horma hartan zer irudituko ez jakitearekin Bidegoiano ikastetxeari laguntza eskatu zion; azkenean, ikasleek marrazkiak eskatu zituzten, horietan oinarritu zituzten. Emaitza, orain dagoen murraltzaile izan zen. Jolas-irratian dago futbol zelaioaren aldean, Loreak, katuak, eguzkiak eta kolore urdina dira nagusiak direnak. «Muzturrak egin dute, eta detale handia eta poltsa izan da», Pello Ezeiza Txinkorta zuzendariak esan bezala.

Zuzendariak adierazi duenez, Txinkorta ikastetxea Amara Berri Sistemaren egokitzan aritu da, eta aurtien Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan murgilduta egongo dira. Honek, gurasoen inplikazioa areagotzen dio, «ikasleek emateko modua aldatu baita, eta materiala ere bai». Amara Berri Sistemaren egotea da ere gurasoen inplikazioa eta laguntza behar izatearen beste arrazoiz garrantzitsu bat.

Beste hainbat erakunde
Udalek ere laguntza eman dio ikastetxeari: laguntza hau esker haurrek ingurua ezagutu dezakete, urtean zehar antolatutako ibilaldiak egingo dira, hain zuzen, Aurtien, aste-rako, Zarzautz edota Muxikara joango dira, besteak beste.

PELLO EZEIZA > TXINKORTA IKASTETXEKO ZUZENDARIA

«Gurasoen lana handia da azkenean, eta borondatez egiten dute»

19 urte daramatza Pello Ezeizak Bidegoianen ikasleak ematen (Tolosa, 1953). 19 urte zuzendari orduan, eta gaur egun 49. Gurtira 10 urte egin ditu zuzendari bere 19 urteko esperientzia horren baitan.

Guraso elkartearen papera zehatza?
Eskertzekoa da beraren jarraia. Beraien laguntza gabe ez lirateke egongo eskolatik kanpoko ikasketak, hala nola, eskulana, dantza, musika, antzerkia, eta abar. Eskolako auzolana egiteko ere betri prest egin dira: hormak edo kolonpoak margotzeko, tokiak josteko... Lan handia da azkenean, eta borondatez egiten dute. Er-

nio Guraso Elkartearen bidez Reviglass enpresak ikastetxea kanpoaldetik atondu zuten, murraltzaile bat erabili. Proposamena egin zitzaion eta prest agertu ziren ere. Hauen lana ere eskertzekoa da.



Argi dago urte kopurua gogoratu doala. Eskerrak, aurtengo kirola 11koa izango da. Ez da inolako horren ikasle kopurua handia izan.

Bai. Horrek abantailak ditu eta desabantailak ere bai. Alde ona da, urte denbora gutxiago ezagutzen duzula. Alde txarra [barre egiten du] hemen ezin duzula hutsik egin, erraza da gu kontrolatzeak.

HAINBAT DATU >

Txinkorta eskolan Amara Berri Sistema jarri dute martan. Duela 6 urte irakasleak prestaketa lanetan hasi ziren, eta aurtien jarraituko dute.

Eskola txikiak. Abaltziskelako, ikastetxea, Bidegoian, Aduna, Aizoa, Berastegi, Berroki, Lizartza, Zizurki, Albiturkua eta Aizkoa.
Hazteko kopurua. 49.
Eraikina. 6 urte ditu.
Banaketak. 5 gelatan daude bananduz: HH1 bi gela, 1. zikloa, 2. zikloa eta 3. zikloa. Liburutegia kanpora alera behar izan dute, pasalekuetara, beraz lau ikasgela baitaude.

AMARA BERRI SISTEMA
Hitzaldia. Eiz, eskola.
Ordua. 16:30an.
Nori zuzendua. Gurasoen eta irakasleei.
Gaia. Amara Berri Sistema, ikastetxe metodologia berria.
Hitzaldian. Asten bi ikasturteetan Amara Berri Sistema inguruan eskolako irakasleak prestaketa lanetan aritu dira. Hori jarraipena emateko aurtien HH1ko bi gelatan eta LH1o 1. zikloan sistema hau egokitzeko lanetan arituko dira.
Sistema honen helburua. Ikaslearen autonomia areagotzea eta ikasleak berak egiten duen edozein akzioz funtzioa izatea; ikaslearen motibazioa areagotzea da.



Reviglass enpresak mosaiko ederra egin zuen Txinkorta ikastetxe patioan. Futbol zelaiaren ondoan dago. Txinkortako ikasleek marrazkiak oinarritu dago horma handia. N. URBIZU

Ernio guraso elkartearen lana

Guraso elkartearen papera esker nahi izan da Bidegoianeko ikastetxeak. «Ernio guraso elkartearen lana ezinbestekoa baita. 20-25 urte dituela adieraz dute guraso elkarteak, baina izen honekin buzpahiru bakarrik, hau da, Bazarrean baitan sartzeko izena eskatu zirenetik.

Aurtien honako lan hauek egin dituzte: urtean zehar dagoen altxarrik egokitu eta kanpoaldean dauden kolonpoak eta jolas-eremuak margotu, besteak beste. Aurtien, berriz, mosaiko eratuako parte koiloretuaren ondoan dagoen horma zati bat margotuko dute. «Hori dago aurrenekoa behintzat», baina ez dakite oraindik nola egingo duten: horretarako ere bidu egingo dira.

Hilabeteen behin egiten dituzte bilera: «Azkenean arduratu da borondatez egiten ditugun gauza guztiak eta ordu batzuk behar dira, baita egiten ditugun bilaketarako ere». Bileran abantaila duen proportzio bat erortzen da, eta bertan proposamenak ere egiten dituzte.

«Egiten dugun guztia borondatez egiten dugu, ez bakarrik guraso elkarteak baizik eta guraso elkarteak. Lana egin behar den guztian ez dugu denok parte hartzen, zaila baita denok biltzea. Azkenean, ahal duena edo nahi duena

erortzen da: orokorrean, gure lana eskulana da, eta beste guztiak beste batzuk arduratzen dira.
Honetarako ere, noski, dirua behar da, eta Udala alde batek, eskola eta gurasoak beste-rik arduratzen dira gastu hauek. «Azkenean polita da eta postazunak ere ematen ditu lan mota honetara. Baina denak ezin izaten dira eta erraz-

za». Aldi berean, gurasoek berriak ere ikusten dute, hau da, lan ia ezinbestekoa dela eskolan: «Kontseilu eskolarrean ere gaurde gurasoak, bertan parte hartzen dugu. Nahir eta irakasleak izan dituzte gai hauek eta asko markatu behar beharrik, gurasoak ere badugu hitza, eta noski, proposamenak ere haieratzen ditugu. <

Kale Berrio 23A • 20150 Villabona • Tel.: 943 11 18 40

TOLOSAKO AITZOL KOOPERATIBAK EUSKARA IRAKASLEAK BEHAR DITU OROZKAPENAK EGITEKO.

Interesatuta bidali kurrikulumak helbide honetara:
AITZOL KOOPERATIBA RONDILLA 34-B TOLOSA

2 lehenengo x zure betakurreko berriak j erostean
Villabona optika
Kale Berrio 23A • 20150 Villabona • Tel.: 943 11 18 40

ZIZURKIL ▶ POLITIKA

Usandizagaren ustez «EAEk Udalean parte hartzen du»

Gipuzkoako PPren presidentek, Maria Jose Usandizagak, «Zizurkilen Alderdien Legea ez dela betetzen» salatu du



PPko Regina Otaola eta Maria Jose Usandizaga Tolosako epaitegitik irteten. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Maria Jose Usandizaga, PPren Gipuzkoako presidentek, Gipuzkoako hainbat herritan «legez kanpo geratu ziren ANV-EAeko zerrendakideek udalean parte hartzen dutela» salatu zuen, iragan asteazkenean Donostian eginiko agerraldi batean. Udalerri horien izenak ere eman zituen Usandizagak, eta euren artean Zizurkil aipatu zuen.

Maria Jose Usandizagaren esanetan, «Zizurkilen EAE legez kanpo dago. Gonbidatu bezala Komizioetan parte hartzen dute, kasu batzuetan gobernu-batzordean ere egon dira. Bilkuretan, berdin-berdin jokatzeko publikoaren lekutik parte hartuz. Herri honetako alkatea EAJko Maria Angeles Lazkano Larrañaga» dela jakinarazi zuen ondoren.

Zizurkilekin batera, Gipuzkoako beste 8 herriren izenak aipatu zituen Gipuzkoako PPren presidentek: Lazkao, Oñati, Zarautz, Beasain, Elgoibar, Zu-

marraga, Eibar eta Donostia. Herri hauetako alkateen jarraia salatu zuen Usandizagak, «terroristei zilegitasun demokratikoa emateko bakarrik balio du jarrera honek, legezko alderdi demokratikoen hautesiei presioa gehitzen zaien birtartean».

Gipuzkoako PPko presidentek, Maria Jose Usandizagak, «egoera larria» dela esan zuen. «Legez kanpo geratutako ANV-EAeko zerrendetako kideek Gipuzkoako udalerri askotan parte hartzea, koakzio eta presio kanpaina baten ondorioa» dela esanaz.

Maria Jose Usandizagak, Alderdi Popularra, Ezker Batua eta Aralar albo batera utzita, beste alderdietako alkateetaz mintzatu zen; «EAJ, Eusko Alkartasuna eta PSE-EEko alkateak ere bai, EAE-ANVren eskaeretara makurtu dira. Marko demokratikoa gainditzea baxen dute «parte-hartze bideak» deitzen diotena. ETA-Batasunako hautetsiei eskaintzen diotenean». Gobernuak ere kri-

tikatu zuen ondoren, «Alderdi Legea berdintasunez ez aplikatzeagatik eta Epaitegi Gorenari lan hori egiten ez uzteagatik».

Gipuzkoako PPren presidentek, «gertatzen ari denaren aurrean», Estatuko Fiskaltza eta abokatuaren esku-hartzea eskatu zuen. «Zorroztasun guztiarekin Alderdien Legea ezarri dadila» exijituaz. Estatuko fiskalak eta abokatuak horretarako eskumena dutela aipatu zuen, bere ustez, hauek egin beharreko bidea ere erakutsi zien, «Espainiako Seguratasun Indarrek informazio ugari dute bilduta gai honen inguruan, nahikoa aztarna dituzte».

Ondoren udalerrien zerrenda irakurri zuen, hauetan Alderdien Legea zapaltzen zela esanaz, «izan ere, legez kanpo-ko EAeko zerrendakideak udal-letan atzeko atetik sartzen dira». Azkenik ANV-EAE alderdia ETA zela esanaz amaitu zuen, «denok dakigu ANV-EAE alderdia Batasuna dela, ondorioz ETA da».

ALEGIA ▶ MUSIKA

Gaztetxean Su ta gar taldearen kontzertua

Gaur 23:00etan sei euroren truke kalparrak astindu eta eztarriak txikitzeko aukera



Su ta gar taldeak joko du gaur Alegiko Gaztetxean. HITZA

A. IMAZ

Alegiko Gaztetxean Su ta gar talde eibartarrak (Gipuzkoa) kontzertua eskainiko du gaur 23:00etan. Sarrerak erosteko aukera egongo da Gaztetxean sei eurotan. Bertan lortzen den dirua, presoan alde izango dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Hasiera batean talde eibartarraren ondoren DJ bat jartzeko asmoa bazegoen ere, azkenean ezin izan dute lortu eta

Su ta gar izango da gaueko eskaintza bakarra. Hala eta guztiz ere, laukoteak Alegiko Gaztetxearen hormak dardarka jarriko ditu, izan ere ez dira alperrik Euskal Herriko talde metalerorik onenatarikoak. Mitoa bizirik ikusteko aukera eskainiko du beraz gaur Alegiko Gaztetxeak. Azken disko-ko abestiez gain, belaunaldi ezberdinak markatu dituzten kantuak entzungo dira Alegiko etxe gorrian 23:00etatik aurrera.

LEITZA ▶

Ezker abertzalearen herri batzarra

Leitzako ezker abertzaleak hilaren 10ean, asteazkenean, herri batzarra izanen dela jakinarazi du. Batzarra Aurrerako goiko solairuan egingen dute, iluntzeko 20:00etan. Bertan gai hauen inguruan hitz egin eta eztabaidatuko dute: prozesuaren balorazioa eta ondorioak eta aurrera begirako ildoak. Herri batzarrera joateko gonbitea luzatu dute ezker abertzaleak.

VILLABONA ▶

‘La jungla 4.0’ pelikula asteburuan

Gurea aretoan gaur hasiko dira berriro helduentzako pelikulak eskaintzen. *La jungla 4.0* filma izango da lehen-dabiziko pelikula, eta gaur 19:30ean eta 22:30an, bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean izango da ikusteko aukera. Larunbata eta igandeetan 4,50 euro balioko du sarre-
rak, eta astelehenetan ikuslearen eguna izanik, 3 euro. Bestalde, bihar *Los Simpson* izango da ikusgai, 17:00etan.

ANOETA ▶

Igandetan kiroldegia zabalduko dute

Anoetako Udalak aurrerantzean igandetan 09:00etatik 13:00etara zabalduko Anoetako Abraham Olano kiroldegia. Bihar bertan hasiko dira neurria gauzatzen, eta lehen hiru hilabeteetan proba moduan ariko dira; hau da, erabiltzaile kopuruaren arabera ikusiko du Udalak hiru hilabete horiek igaro ostean ere igandean zabalik mantenduko duten ala ez herriko kiroldegia.

KOLDO ARSUAGA ▶ TAKE-KO LEHENDAKARIA

«Helburua mantentzea da, baina maila galtzen badugu ez da porrota izango»

Tolosa Aralar taldeak gaur jokatu du denboraldiko lehendabiziko partida, 16:00etan Usabal kiroldegian



I. TERRADILLOS

HARRIET BELLOSO

Gaur hasten da Tolosa Aralarrentzako denboraldi berria. Iaz liga irabazi eta mailaz igotzea lortu zuten saskibaloia joko ona eginez. Koldo Arsuagak (Tolosa, 1967) TAKE klubeko lehendakaria, denboraldi berriari buruz eta Tolosaldeko saskibaloia-aren egoerari buruz hitz egingo digu.

Nola ikusten duzu taldea?

Aurtengo denboraldia zaila eta gogorra izango da taldearentzat. Gure aurkarien maila oso altua da eta partiduak oso zailak izango dira.

Liga irabazi zuen taldea mantendu da edo fitxaje berriak egin dituzue?

Nahiko garrantzitsua zen jokalaria bat galdu dugu, baina bi aurpegi berri ditugu aurtén. Kluba ondo ezagutzen dute eta hori funtsezkoa da.

Zein da aurtengo helburua?

Gure helburu nagusia maila mantentzea da. Horretarako etxeko partiduak oso balioetsuak izango direla uste dut. Taldeko gazteak urtebete zaharragoak dira eta hori nabarmendu beharko litzateke.

Taldean jokalaria beterano asko daude, baina azken urteotan gazte asko sartzen ari dira, nolakoa da beraien arteko erlazioa?

Nahiko giro polita dagoela esan daiteke. Urte asko darabate batera entrenatzen eta azkenean ez da hainbeste nabaritzen adin arteko diferentzia hori.

Maila galtzeak porrota suposatzen al du?

Guretzako maila galtzea ez da porrota. Urte kaxkarra egiten badugu entrenatzen eta jendea gogo gabe aritzen bada partiduetan gauzak gaizki egin direla esango genuke. Taldeak bere lana ondo egiten badu, maila galtzea ez da porrota izango.

Gaur egun TAKEren buru zaudete, zerk bultzatu zuen klubaren sorrera?

Duela hogeitau urte inguru hasi zen Eskolapioetan. Eusko Jaurlaritzaren lege berri baten birtartez legalki taldea sortu zen. Momentu horretan lagun talde bat biltzen ginen saskibaloian jolasteko eta denon laguntzarekin taldea aurrera eramatea lortu zen. Azken urteotan kluba asko hazi da, baina urte txarrak egon dira ere. Adibidez urte batzuetan harrobia alde batera utzi genuen jendea ez zegoelako eta baliabide aproposak ez zeudelako. Orain jende asko dago lanean klubaren funtzionamendua ahal den onuragarriena izan dadin. Hasi ginenean gure helburua mundu guztiari saskibaloian jolasteko aukera ematea zen eta

hori betetzen ari garela uste dugu.

Zenbat talde daude klubaren barnean?

Guztira bederatzita talde daude, zazpi mutilenak dira eta bi neskenak.

Nesken taldeak berrikuntza dira.

Pasa den urtean infantil nesken talde bat gurekin lan egiteko gogotsu zegoen eta klubean sartzeko eskaera egin zuten. Beste proposamen bat jaso genuen baita ere. Diputaziotik mutlekin oso lan ona egiten ari ginea baina neskekin gauza bera egin behar genuela esan ziguten. Neskekin lan egiteko interesa bazegoen baina ez zeuden ez entrenatzailearik ez laguntzarik horretarako. Bi talde izango ditugu aurtén, nahiz eta senior mailako talde bat sortzeko proposamen bat izan dugun. Behetik hasi nahi dugu, inongo presiorik gabe.

Nola ikusten duzu Tolosaldeko saskibaloia-aren egoera?

Egoera ezin hobea dala esan daiteke. Urte bakoitzeko talde bat daukagu eta hamabi jokalariz osatuta daude. Gainera, talde bakoitza bi entrenatzailek zuzenduko dute. Klubaren urterik hobereana izan daitekeela pentsatzen dugu talde asko daudelako eta batez ere lana ondo egiten ari garelako. Talde gehiago egoteak aurrekontuaren igoera suposatzen du, eta hori ona da klubarentzat.

Duela 6-7 urte harrobiaren egoera oso kaxkarra zen, baina azken urteotan jokalaria gazte asko sartu dira. Pau Gasolek eta Espainiako selekzioaren emaitzek ba al dute eraginik horretan?

Espainiako selekzioaren eragina oso nabaria da. 1984. urtean Los Angeleseko olinpiadetan zilarrezko domina lortu zuten saskibaloiak izugarriko gorakada jasan zuten. Japonian izan zuten arrakastak saskibaloian jolasteko gogoak piztu ditu berriz gaztekoen artean. Bruesak ACBn jolastu izanak ere asko lagundu du. Baina, nire ustez telebista izan da gehien egin duena saskibaloia-aren igoera honen alde.

Zer esango zenloke saskibaloia gustoko ez duen bati larunbatean Aralarren partidua ikustera joateko?

Etortzeko nolako giroa dagoen ikustera. Baina ez bakarrik seniorren partidua ikustera, kadeteena, infantilena eta jubenilena ere. Larunbat goiz guztietan bi edo hiru norgehiagoka egongo dira ikusgai eta normalean jende asko gerturatzen da ikustera eta animatzera. Seguru nago behin baino gehiagotan etortzen bada, azkenean kirol zoragarri honekin disfrutatzen amaituko duela.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko urriaren 6a, larunbata ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **19** hotzema **16**

BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

'HITZA' LAGUNTZEN UDALAK: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Vilabona, Zuzurkil

DUTEN ERAKUNDEAK

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (balantzak argitzeko, harpidetuen egileko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Su ta Gar talde ezagunaren kontzertua Alegiako Gaztetxean 23:00etan.

Bidegoian. Kultur Astearen baitan, 15:00etan marrazki lehiaketa izango da. Oinarriak egunean bertan banatuko dituzte, eta txikienek ere parte har dezakete. Sariak ere badaude. 17:30ean Poxpoko eta Mokolo pailazoak izango dira *Run-Run* saioarekin. Ondoren, txokolatada.

Leitza. Arkupeak-ek Kubara irteera antolatu du urriaren 19tik 29ra, La Habana, Varadero eta Cienfuegos bisitatuz. Izen-ematea, elkartearen (1.865 euro).

Tolosa. Urriaren 12an, ostiralarekin, bertso-afaria antolatu du Udaberri dantzari taldeak bere 50. urtemugan, Zerkausian, Egaña eta Arzallus bertsoariekin. handienekin lehiatzen da. Sarrerak salgai Garikano, Kimetz eta Zumbeltz dendetan 20 eurotan.

Tolosa. San Esteban auzoko herri krosa urriaren 12an izango da, datorren ostiralean. Izen-ematea Shanti Kirok-en eman daiteke.

Ugarteko. Ugarteko jaiak: pilota partidak 11:30ean; puzgarriak 12:30ean; VII. Mus Txapelketa 16:30ean; zaldi ibilaldiak; txokolatea; zahagi ardoa 21:00etan; Ansotegi eta Larrañaga trikitilariak 23:00etan eta atsedendaldian ikuskizun bitxia.

Zizurkil. Segapustua Zizurkilan 17:00etan: Jesus Ormaetxea *Urki* orendaindarra eta Andoni Goikoeetxea gazteluarra Jon Lapazaran markinarra eta Juan Joxe Lizasko asteasuarraren aurka.

ZINEMA

Tolosa. *Las tortugas Ninja* haurrentzako filma 17:00etan eta *El ultimatum de Bourne* filma 19:30ean eta 22:30ean emango dituzte Leidor aretoan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Paisaiak lantzen dituen Rufino De Toro margolariaren lanak daude



Abelgorri Lehiaketa, gaur goizean Ferialekuan

TOLOSA ▶ Gipuzkoako XXXVIII. Abelgorri Lehiaketan egin dute gaur goiz guztian zehar Tolosako Ferialekuan. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta eta Tolosako Udalaren laguntzarekin 08:00etatik 14:00etara bilduko dira eskualdeko nahiz kanpoko abeltzainak lehiaketan parte hartzeko. Argazkian, iazko edizioan lehiaketan parte hartu zuen abere-tako batzuk. NEREA URBIZU

jubilatuaren tabernan. Asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar daude. **Belauntza.** Bihar arte, 17:00etatik 20:00etara zuhaitzetako onddoi buruz argazki erakusketa ikusgai jarri dute Belauntzako Kultur Etxean. Joxe Manuel Lekuona Aranzadiko Zientzia elkarteko mikologoak osatu du erakusketa; aditu nahiz zaletuei zuzenduta dago. **Tolosa.** Aitor Tejeriaren margolanak ikus daitezke Sorron marko dendan (Korroo kalea).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.
 ▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Zorionak amabiti! Bihar 90 urte!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa
- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea

hitza agurren tartea

Pinxoak-otartekoak-plater konbinatuak-sandwichak-hanburgesak
 Kartako menua-taldeentzat menuak-sagardotegiko menua

Usabal Kiroldegia
 Tolosa Tel.: 943 577573
 www.bidebide.es

bidebide restaurante & bar

Astakiloen abenturak
 8 liburuz osatutako ipuin bilduma

Bernardo Atzagak idatzitak - Marrazkiak: Jokin Mikelena

- 1- Astakiloak Arabian
- 2- Trausatlantiko batuan
- 3- Astakiloak Finisterre aldean
- 4- Zirku batuan
- 5- Manager bibotekurra
- 6- Astakiloak New Yorken
- 7- Astakiloak Afrikan
- 8- Afrikako zuhaitz txikia

Urriaren 6tik aurrera, larunbatero BERRIAREKINI
 +4,5 €

Liburu guztiak erosit gero, astakiloen mentsaki biziaren DVDa oparit
 6 abendura bitartean diru, 60 minutuko iraupena du.

liburuen...